



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bermeoko Udala

Bermeoko Udaleko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko deialdia. Praktikaldia edo probaldia arautuko duen barne eginbidea.

Iragarkia, Bermeoko Udalarena, iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko deialdian egin beharreko praktikaldia edo probaldia arautuko duen barne eginbidea.

2024ko abuztuaren 26ko 4930 zenbakidun Alkatetzaren Dekretuz onartu eta 2024ko irailaren 5eko 5164 Alkatetza Dekretuz zuzenduta, honakoa xedatu da:

Bermeoko Udaleko praktikaldia edo probaldia arautuko duen barne eginbidea onartzea I. eranskinean adierazten den eran.

Bermeon, 2024ko irailaren 6an. — Alkatea, Nadia Nemeš Shomaly



I. ERANSKINA

EGINBIDEA: PRAKTIKALDIARI EDO PROBALDIARI BURUZKO JARRAIBIDEAK

Praktikaldiak baliagarria izan beharko du Bermeoko Udalean sartzen den pertsonak, Udalaren inguruko funtzionamenduari eta lan baldintzei buruzko informazioa jasotzeko.

Era berean, denbora horretan beteko duen lanpostuaren inguruko informazio zehatza jasoko du, bere lana ondo burutu ahal izateko.

Azken finean, helburu nagusia praktikaldia edo probaldia egiten ari direnen gaitasunak konprobatzean datza: udal lan taldean integratzeko eta egokitu zaien lanpostua betetzeko gaitasunak, hain zuzen ere. Aipatutako azken aspektu horren ingurukoak dira aurrerantzean azalduko diren jarraibideak.

Praktika aldiaren araudiari dagokionez, hauek dira Bermeoko Udaleko hautaketa prozesuan aplikagarriak direnak:

- Urriaren 30eko 5/2015 Lege Errege Dekretuaren bidez, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legea onartu zen. Horren arabera, funtzio publikora sartzeko probak praktika aldia gainditzearekin osatu daitezke (61.5 artikulua).
- Toki Administrazioako funtzionarioak hautatzeko prozedurak bete behar dituen oinarriko arauak eta gutxieneko programak ezartzen dituen ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretua.
- Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legea. 76. Artikulua: hautaketa prozesuko fase moduan praktika aldia ezartzeko aukera aurreikus-ten da.

Orain arte ez denez egon erregelamendu bidezko garapenik, beharrezkoa da Bermeoko Udalean praktikaldiaren/probaldiaren aspektu eta baldintzak arautzen dituen barne jarraibide bat egitea.

1. artikulua. — *Helburua*

Praktikaldiaren/ probaldiaren helburua, hautagaiak, karrerako funtzionario edo labo-ral finko bihurtutako plazako gaitasunak dituela egiaztatzea da. Era berean, tutore izen- datutakoak orientazioa eskaini beharko dio.

Instrukzio honen helburua praktikaldi edo probaldi hori arautzea da; eta, egoera ho- rretan dauden lan baldintzak arautzea.

2. artikulua. — *Indarraldia eta aplikazio-eremua*

Eginbide honek egonkortze prozesua amaitu arteko indarraldia izango du, eta ez da aplikatuko ohiko hautaketa prozesuetako praktikaldi edo probaldian.

Jarraibide hau Bermeoko Udalean praktiketan dauden funtzionarioei aplikatuko zaie.

Era berean, lan-kontratudun langileei ere aplikatuko zaizkie, lan arloko legeriaren aurkakoak ez diren aspektuetan.

3. artikulua. — *Iraupena*

Praktikek honako iraupen hau izango dute:

- A taldea: 6 hilabete.
- C taldea: 3 hilabete.
- Lan taldeak: 3 hilabete.

4. artikulua. — *Prozedura*

- a) Funtzionario lanpostuetarako praktikaldia edo lan kontratudun langileentzako probaldia beti egingo dira batzorde edo pertsona ebaluatzaile baten tutoretza- pean.

Langileria sailak pertsona edo batzorde ebaluatzailea izendatzeko proposamena egingo dio Alkatezari.



- b) Tutore izendatuak, hautagaiaren plazako azpieskala berekoa edo goragokoa izan beharko du. Edonola ere, beste kategoria bat izanez gero, lanpostu horretarako behar den maila bereko titulazioa edo goragokoa izan beharko du.
- c) Batzorde Ebaluatzaile bat izendatzekotan, honela egongo da osatuta:
 - Gutxienez 3 pertsona.
 - Batzordearen osieran, gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonen presentzia orekatua sustatuko da.
 - Gutxienez pertsona batek izangaiari eskatzen zaion maila bereko edo goragoko hizkuntza eskakizuna izango du.
- d) Hautaketa prozesuaren oinarriek hala ezartzen dutenean, tutoreari laguntza eta informazioa emateko gainbegirale bat izendatuko da.
- e) Tutore/Batzorde Ebaluatzailearen funtzioak honako hauek izango dira:
 - Praktika aldia dagoen funtzionario edo probaldian dagoen lan kontratudun langilea orientatu eta bideratzea, beharrezkoa balitz bere jokabidea birbideratuz.
 - Praktika aldia edo probaldia burutzen ari denaren sailburuak, praktikaldiaren edo probaldiaren inguruko txostena egin beharko du; eta, bertan adierazi beharko du hautagaia egokia den kidego, eskala eta talde profesional bakoitzari dagokion lanpostuari esleitutako funtzioak betetzeko. Txosten hori oinarri hartuta, tutoreak bere txostena egin beharko du eta jarraibide hauekin batera doan ebaluazio fitxarekin batera aurkeztu beharko da (III. eranskina).
- f) Tutoreari abstentzio eta ez onartze arrazoiak aplikatu ahal izango zaizkio, Sekto-re Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 23 eta 24 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.
- g) Praktikaldiak/ probaldiak iraun bitartean tutoretza hori garatzea eragozten duen egoerarik sortuko balitz, Langileria sailak beste tutore bat proposatuko du, aipatutako irizpideen arabera.
- h) Tutorea aldatu ahal izango da, baldin eta, praktiketako funtzionarioaren edo probaldian dagoen lan kontratudunaren sailburuak, praktikaldian zehar, tutore izateko baldintzak betetzen baditu.
- i) Praktikaldia edo probaldia bukatuta, praktiketako funtzionarioak edo lan kontratudun langileak memoria egin beharko du, I. eranskinean (LT azpitaldekoen kasuan, II. eranskina) adierazten den eredia jarraituta. Memoria horretan adierazitakoa eta sailburuak egindako txostena kontuan izanik, tutore izendatutako pertsonak (edo batzordea ebaluatzaileak) txostena egin eta III. eranskinean ageri den ebaluazio fitxa bete beharko du.
 - Praktika/proba aldia gainditzeko duten pertsonak karrerako funtzionario izendatuko dira edo lan kontratua formalizatuko dute.
 - Bestela, Alkatetzak arrazoitutako ebazpen baten bidez ez gaitzat jo dezake probaldia edo praktika aldia. Kasu horretan, aurretik entzunaldia eskainiko da tutorearen txostenak (edo batzorde ebaluatzailearenak) aztertzeko, eta, ondorioz, karrerako funtzionario edo lan kontratudun langile izateko eskubide guztiak galduko ditu.

5. artikulua. — Praktikak etetea eta atzeratzea

Praktiketako funtzionarioa edo lan kontratuduna 15 egunetik gorako (jarraian edo etenda) aldi baterako ezintasun-egoeran badago, amatasun-aitatasun lizentzia badu, edo praktika aldiaren garapen arrunta eragozteko justifikatzen duen beste edozein arrazoi badu, oporraldiak salbu, praktikaldia luzatzeko eskatu beharko dio Langileria Sailari.

Praktikaldian lanaldi murrizketa izan ezkerro, praktikaldia edo probaldia luzatu egingo da. Luzapena murrizketarekiko proportzionala izango da. Eszedentzia kasuetan, aldiak, praktikaldia edo probaldia atzeratu egingo da; hau da, probaldia edo praktikaldia ez da hasiko hautagaia laneratu arte. Bi kasuetan, praktiketako funtzionarioak edo lan kontratudun langileak, praktikaldia edo probaldia hasi baino lehen, lan murrizketari edo esze-



dentziari uko egiteko aukera izango du, praktikaldia edo probaldia burutu eta karrerako funtzionario edo lan kontratudun langile finko izateko.

Luzatzeko baimena Langileria Saileko zinegotziak emango du. Luzapena bera eragin duen gertakariak irauten duen denboran luzatuko da praktika aldia eta funtzioak bete-
tzea eragozpen duen egoera desagertzen denean burutuko da.

Praktiketan dagoen funtzionarioak eta dagokion arloko arduradunak, Langileria Sai-
lari jakinaraziko diote 15 egunetik gora (jarraian edo etenda) lanpostuan ez egotea era-
giten duen edozein egoera.

Praktika aldian lanera ez joateak, aldi hori atzeratu edo konpentsatzen denean salbu,
automatikoki hautaketa prozesutik kanporatzea ekarriko du.

6. artikulua. — *Ordainsariak eta oporrak*

Praktiketako funtzionarioen edo probaldian dauden lan kontratudun langileen alta
egingo da Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean.

Betetzen duten lanpostuari dagokion ordainsaria jasoko dute, Euskal Enplegu Publi-
koari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 127. Artikuluaren arabera.

Emandako zerbitzuak aitortzeari dagokionez, praktikaldia edo probaldia emandako
zerbitzu moduan konputatuko da.

7. artikulua. — *Lan poltsatik behin betiko baja ematea*

Praktika aldia gainditzen ez dutenak deialditik sortutako lan poltsan behin betiko baja
egoerara pasatuko dira.

8. artikulua. — *Hautaketa prozesutik kanporatzea*

Hautaketa prozesutik kanporatzeko arrazoia izango da Euskal Enplegu Publikoaren
Legeari larri edo oso larri moduan sailkatutako arau-hauste bat egitea praktikaldian.



I. ERANSKINA

HAUTAGAIK BETE BEHARREKO MEMORIA (OROKORRA)

Praktiketako/probaldiko enpleguaren datuak.

Tutorearen datuak.

Sailburuaren datuak.

1. Plaza/lanpostuaren deskribapena.
2. Burututako funtzioak eta zereginak.
3. Ondorioak.
4. Eranskinak: egindakoen ebidentziak (funtzio bakoitzetik gutxienez bat).

* Memoria honi sailburuaren txostena erantsiko zaio, non, batetik, praktikaldian/probaldian dagoen enpleguaren txostenaren adostasun edo desadostasuna agertuko den; eta bestetik, tutoreak bete beharreko ebaluaketa fitxan jasotakoa garatuko den.



II. ERANSKINA

LT AZPITALDEKO HAUTAGAIEK BETE BEHARREKO MEMORIA

Praktiketako/probaldiko enpleguaren datuak

Tutorearen datuak

Sailburuaren datuak

1. Plaza/lanpostuaren deskribapena

2. Burututako funtzioak eta zereginak (lehenengo, aukeratu ze plazatan burutu duzun praktikaldia edo probaldia; gero, markatu zeintzuk izan diren praktikaldian edo probaldian zehar egin dituzun funtzio eta zereginak)

3.1. Peoi plazan

- Paperontziak hustu eta garbitu ditut, baita dagokion kontenedoreen hondakinak batu ere.
- Zakarrak jaso ditut dagokion gurditxoaren bidez, eta, gero, edukiontzietara bota ditut.
- Merkatu txikiko garbiketa egin dut.
- Erratz makinako gidariari laguntza eman diot, makina heltzen ez den zakarra gerturatzeko, makina beraren mantenimenduan, eskuilak aldatzen, kargatzen eta deskargatzen, garbitzen etab.
- Sumideroak garbitu ditut.
- Erratzaren bidez kaleak, enparantzak eta bideak garbitu eta bertan dauden zakar guztiak jaso ditut.
- Lorazain ofizialaren ardurapean, lorategian eta oro har, udalaren arduraren menpe dauden gune berdeen mantenimenduaz eta zaintzaz arduratu naiz.
- Egondako matxuren berri eman diot arduradunari.
- Ureztatze sareak jarri eta daudenak konpondu ditut.
- Furgoneta, d unperrak, zaztar batzeko kamioi txikia... gidatu behar izan ditut.
- Lanerako beharrezkoak diren produktu arriskutsuak erabili ditut.
- Hodiak zabaldu eta itxi ditut, murrak eta trankadak bota eta altxatu ditut. Orea egin, materialak kargatu eta deskargatu behar izan ditut kale eta espaloiak beheratu, herri-aitzarien eta trafikoko seinaleen kontserbazioa eta mantenimenduko lanak egin, saneamenduko lanak egin, materialak leku batetik bestera eraman, kultura eta ekintzetarako instalazioak muntatu, eta bere lana egin ahal izateko baliabide mekanikoak erabili ditut.
- Desbrozeak egin ditut.
- Arratoiak hiltzeko benenoa banandu dut agindutako lekuetan.
- Dagokion tokian dauden zakar poltsak batu eta kamioian kargatu ditut.



- Kontenedorak batu, garbitu eta defektuak konpondu ditut.
- Nire lana egiteko beharrezkoak izan diren segurtasun neurriak hartu eta zaindu ditut.
- Beste batzuk: ... (adierazi zeintzuk)

3.2. *Etxez etxeko laguntzaile plazan*

- Otorduak prestatzen lagundu dut.
- Jakiak erosi ditut.
- Etxean arropa garbitzen lagundu dut.
- Arropa ordenatu dut.
- Etxean arropa lisatu dut.
- Arropa erosten lagundu dut.
- Etxearen garbiketa eta mantentze lanak (garbiketa orokor garbiak izan ezik) egin ditut.
- Ohea egin dut.
- Ekonomia familiarren kontrola eraman dut.
- Bere burua garbitzen lagundu (pertsonek jantziak eta oheko arropa aldatzea barne) diot.
- Ohetik jaiki, oheratu eta eserlekutik altxatzen lagundu diot.
- Etxean mugitzeko laguntza eman dut.
- Medikuek adierazitako ahoz hartzeko botikak kontrolatzea eta botiken jarraipena egin dut.
- Jantzen eta bazkaltzen lagundu eta kontrol dietetikoaren eraman diot (kolesterola, diabetesa, urdaileko arazoak...), beti ere medikuaren aginduak jarraituz.
- Etxetik kanpo lagundu diot izapide pertsonalak egiten, beharrezkoa bada enpresako kotxea erabiliz: banketxera, osasun zentrura, errekurtsioak izapidetzera, dokumentazioa eskatu eta ematera...
- Etxe ingurunean egin beharreko joan-etorrietan lagundu dut: haurtzaindegietara, ikastetxeetara, gizarte zerbitzu espezializatuera, garraioak hartzera...
- Lagun egiteko eta paseatzera joateko zerbitzuan parte hartu dut.
- Nekazal guneak atenditu ditut enpresako kotxea erabiliz.
- Beste batzuk: ... (adierazi zeintzuk diren)

**3.3. Atezain plazan**

- Eraikineko instalazioen funtzionamendua kontrolatu eta zaindu dut, beharrezkoak diren konponketak eginez eta zailtasun gehiagoko konponketak zentroko arduradunari jakinarazi dizkiot.
- Instalazioen mantentze eta zaintzaz arduratu naiz (berogailua, telefonoa, alarma, igogailua, lapurreten kontrako sistema, ura, argia...).
- Eraikineko atek ireki eta zarratu ditut. Gela guztiak zabaldu eta dena ordenan dagoela ikusi dut.
- Bideozaintzarako pantailak begiratu ditut.
- Burututako lanaren eguneroko/ asteroko partea bete dut.
- Zentrora sartzen diren erabiltzaileen kontrola eraman dut, eta instalazioen erreserbak eta horien erabileraren ordutegi kontrola egin dut, gela guztietako giltzen ardura nire gain hartuz.
- Telefono guneaz arduratu naiz, eta sartzen zein irteten diren deiak kudeatu ditut.
- Instalazioak era egokian erabiltzen direla zaindu eta erabiltzaileek bete beharreko arauak betetzen dituztela konprobatu dut.
- Liburuak eskatzen dituztenean laguntza eman eta liburuen sarrerak eta irteerak erregistratu ditut.

3.4. Garbitzaile plazan

- Eraikinean dauden gela, pasillo, eskailera, bulego, igogailu... guztiak garbitu ditut, baita kanpoan daudenak ere (patioak, terrazak, adokin gunea, eskailerak, erranpak...)
- Zakarrontziak hustu, hautsontziak garbitu eta jasotako zakar guztia poltsetan sartu eta bakoitza behar den lekuan jarri dut (plastikoa, papera...)
- Altzariei, lanparei, hornei eta objektu guztiei hautsa kendu eta distiratsu utzi ditut.
- Aspiragailua eta ezkoztatzeko makina erabili behar izan dut.
- Egurra tratatzeko produktuak erabili ditut, lurretan, ateetan zein altzarietan.
- Arduradunak agindu didalako, garbiketa sakonagoa egin dut.
- Norberaren lanari dagokion segurtasun neurriak hartu eta zaindu ditut.
- Dagokion alarmak konprobatu ditut.
- Azoka zabaldu eta itxi dut.
- Zoru garbigailua erabili dut.
- Gertatu diren matxuren berri eman diot arduradunari.
- Beste batzuk: ... (adierazi zeintzuk diren)



3.5. Sukaldari laguntzaile plazan

- Eguneko menuetako jatordu bakoitzeko janariak prestatu eta sukaldatu ditut (gosaria, bazkaria, afaria...).
- Jantokira zein logeletara eraman ahal izateko era egokian banandu dut janaria, ontziak, erretiluak, gurditxoak...erabiliz.
- Erabilitako tresneria batu, eta, ondoren, garbitu egin dut.
- Sukalde laguntzaileekin batera hozkailuetako, biltegietakoko, sukaldeko, mahaietakoko... garbitasunean lagundu dut, baita garbitu ere.
- Hornitzaileek dakartzaten eskaerak jaso, behatu eta biltegitatu ditut.
- Beste batzuk: ... (adierazi zeintzuk).

3. Ondorioak (funtzioen bat ez baldin bada burutu, zergatik izan den adierazi).

* Memoria honi sailburuaren txostena erantsiko zaio, non, batetik, praktikaldian/probaldian dagoen enpleguaren txostenaren adostasun edo desadostasuna agertuko den; eta bestetik, tutoreak bete beharreko ebaluaketa fitxan jasotakoa garatuko den.

III. ERANSKINA
TUTOREAK BETE BEHARREKO EBALUAZIO FITXA

Hautagaiaren izen abizenak	
Plaza	

Adierazleak	Egokia	Desegokia
LANAREN EZAGUTZA		
LANA BETETZEA		
AGINDUAK BETETZEA, DIZIPLINA		
TALDE LANERAKO GAITASUNA		
LANERAKO AUTONOMIA GAITASUNA		
ERABAKIAK HARTZEKO GAITASUNA		

BEHIN BETIKO KALIFIKAZIOA	GAI	EZ GAI
---------------------------	-----	--------

Data eta sinadura	
-------------------	--

*Honekin batera erantsi behar da behar bezala arrazoitutako txostena